

Gobernu Batzarraren Akta

2024ko abenduaren 09a

Bildutakoak:		Akta Zenbakia 00000015
Patxi Iburguren Etxeberria	Lehendakaria eta Hernaniko Udaletik	Eguna 2024/12/09
Pepe Iparraguirre Balda	Andoaingo Udaletik	Iraupena -
Iratxe Begiristain Otegi	Usurbilgo Udaletik	
Jorge Segurado Iriondo	Urnietako Udaletik	
Nuria Fernández Castrillo	Lasarte-Oriako Udaletik	
Xabier Urdangarin Lasa	Astigarragako Udaletik	
Asistentzia teknikoa:		
Julen Mungia Gorrotxategi	Idazkari-Kontuhartzailea	
Helene del Río Laboa	Zuzendaria	
Ez dira bertaratu eta etorri ezina adierazi dute:		
Parte hartzen du ere		

Gai Zerrenda

- | | |
|-----------------------------------------------------------------------------------------------------|--------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| 1.- 2024/11/11(e)an egindako bileraren aktaren zirriborroa irakurri eta onartzea, bidezko bada. | 1.- Lectura y aprobación, si procede, del borrador del acta de la sesión celebrada el 11/11/2024. |
| 2.- Kontuen Batzorde Bereziak Mankomunitateko 2025ko aurrekontuei oniritzia ematea, hala badagokio. | 2.- En su caso, dar el visto bueno a los presupuestos del 2025 de la Mancomunidad por parte de la Comisión Especial de Cuentas |
| 3.- Galdera, erregu eta proposamenak. | 3.- Ruegos, preguntas y propuestas. |

Nahikoa quorum dagoenez eta Lehendakaria eta Idazkaria ere bertan daudenez, bilkura baliozki eratzen da.

1.- 2024/11/11(e)an egindako bileraren aktaren zirriborroa irakurri eta onartzea, bidezko bada.

Lehendabizi, 2024/11/11 datako Gobernu Batzordeko batzarraldiari dagokion akta irakurri ondoren, Lehendakariak honen onarpena bozketara jarri du eta Gobernu Batzordeak, aho batez, ontzat eman du.

2.- Kontuen Batzorde Bereziak Mankomunitateko 2025ko aurrekontuei oniritzia ematea, hala badagokio.

Urnietako ordezkariak hartu du hitza eta esan du bilera baino lehen idazkari-kontuhartzailearekin elkartu dela, Lasarte-Oriako ordezkariarekin batera, eta gai batzuk argitzeko aukera izan dutela, nahiz eta zalantza batzuk argitzeke geratu diren.

2025ko aurrekontuen zalantzekin sartu baino lehen, argitu nahi zuen aurreko Batzar Nagusian erabaki zela Iraunkortasun teknikariaren lanpostua Enpresa departamentuaren barruan sartzea eta, beraz, lanpostua Enpresa eta Iraunkortasun teknikarian bilakatzea. Hortaz, argi utzi nahi du teknikari honek egingo dituen lanak enpresekin lotutako iraunkortasun alorrekoak izango direla eta ez udaletan egiten den iraunkortasun lanetako.

Lehendakariak erantzun dio organigrama aldaketa egon dela eta baietz, enpresekin lotutako iraunkortasun lanetan arituko dela.

Honekin lotuta, Urnietako ordezkariak esan du Zuzendariaren txosten batean jartzen duela iraunkortasun teknikari hau arituko dela %50ean eskualdearekin lotutako iraunkortasunean eta beste %50ean enpresekin lotutako iraunkortasunean.

Lehendakariak erantzun dio txosten tekniko hori zaharkituta gelditu dela, txosten hori egin zenetik aldaketak egon direla, eta horregatik txosten definitiboan dagoeneko ez duela hori jartzen adierazi dio.

Gai hau alde batera utzita, 2025eko aurrekontuetan dituen zalantzak plazaratu ditu:

- 2024. urteko ekitaldiaren itxieraren estimazio bat eskatzen dute ikusteko partida bakoitza zenbateraino erabili den.

Idazkari-kontuhartzaileak erantzun dio saiatuko direla horrelako zer edo zer egiten, nahiz eta aldez aurretik jakinarazi dion ez dela erreza izango 2024rekin alderatuta partida batzuk aldatu egin direlako, besteak beste, 2024ko partida orokor batzuk beste partida zehatzago batzuetan banatu direlako eta, horrek egin nahi den konparaketa zailtzen du.

- Argindarraren gastuak zergatik jaitsi diren galdetu du eta erantzun zaio ikusi delako partida horretako kredituan soberakina zegoelako eta ez delako aurreikusten hainbeste kreditu beharko denik.
- Lasarte-Oriako ordezkariak adierazi du 1 0100.227.430.00.26 2025 “Beste jarduera batzuk” partidari 8.000€ daudela eta jartzen duela Beterri Saretuz-entzat izango direla. Honen gainean bere kezka azaldu du izan ere aurreko Gobernu Batzarrean espresuki galdetu baitzuen Beterri Saretuz-ekin zer erlazio geneukan edo beraiekin lanketa bat.

Lehendakariak argitu dio Beterri Saretuzekin ez daukagula ezer hitzartuta ezta hitz eginda ez oraingo ez etorkizunerako. Hala ere, Beterri Saretuz eskualdean sortu zen enpresen taldea dela, bere garaian, eskualdetik sustatu zena. Bere ustez garrantzitsua da horrelako enpresa eta ekintzaile mugimendu batetik gertu egotea eta berari, pertsonalki, bai gustatuko litzaiokeela zerbaitetan kolaboratzea Beterri Saretuzekoekin. Hala ere, esan du gaur egun ez dagoela ezer ez beraiekin adostuta ezta hitz eginda eta “beste jarduera batzuk” partidari dagoen kreditua ez dela zertan horretan gastatzeko. Izan ere, hor dauden 8.000€ak direla ekintzailatza mailan aurreikusia ez dagoen edo aurreikusia dagoena handitu nahi badugu erabiltzeko kreditu gehigarria.

Zuzendariak osatu du Lehendakariak esan duena eta esan du badaezpadako partida bat uztea ondo ikusten duela, eta horregatik enpresa departamentuan ere badagoela horrelako beste partida bat. Aurrekoa justifikatu du esaten urtero GFAK lanketa zehatz bat egiten duela (aurten, adibidez, Lanaren Zentzua izan da) eta 2025ean beste zerbait izango da. Horregatik, komeni da, adibidez, GFAK bultzatutako lanketa horiek burutzeko nahikoa kreditu uztea horrelako partidetan.

Lasarte-Oriako ordezkariak erantzun dio ez zaiola ondo iruditzen helburu zehatzik ez duen partidarik uztea aurrekontuan. Partidak helburu zehatz bat izan behar dutela dio eta, etorkizunean, beharren bat identifikatzen bada, kreditu aldaketaren bidez erantzun daitekela behar horri. Horregatik, Lasarte-Oriako ordezkariak proposatzen du “beste jarduera batzuk” partidak pasatzea kreditu globaleko partidara.

Andoaingo ordezkariak hartu du hitza eta esan du berari berdin zaiola kreditu globalera pasatzea partida horiek edo ez. Hala ere, esan du kontuan izan behar dela kreditu globalean uzten baditugu, etorkizunean kreditu horien beharra dugunean, lan administratibo eta burokrazioa gehiago jasan beharko dugula kreditu horiek erabiltzeko. Idazkari-kontuhartzaileak erantzun dio hori horrela dela baina kreditu globaletik dirua hartzea beste partida batzuetarako ez dela hain neketsua kreditu aldaketa bat egitearekin alderatuta. Eskumena Lehendakariak

izango lukeela eta, nahiz eta espediente berri bat egin behar izan, epe aldetik azkarragoa da.

Usurbilgo ordezkariak hartu du hitza eta esan du Usurbilgo Udalean, hirigintza departamentuan adibidez, beraiek badituztela horrelako partida batzuk ustekabeko eta aurreikusi gabeko gastu batzuei aurre egiteko. Partida horien kredituak, hemen bezela, ez direla handiak esan du baina beraiek bai erabiltzen dituztela horrelako partidak.

Urnietako ordezkariak esan du berari berdin zaiola kreditu horiek dauden bezela uztea edo kreditu globalera pasatzea.

- Urnietako ordezkariak galdetu du turismoari dagokionez zer egitea pentsatzen den eta Zuzendariak erantzun dio Basquetourekin lotutako proiektuak gauzatzeko 26.000€ko partida bat dagoela, izan ere, Eusko Jaurlaritzak eskatzen du aholkulari batek gauzatzea programa horiek (kode etikoa, enogastronomia, familia turismoa...). Bestalde, 17.000€ko beste partida bat dagoela turismo haunarketako gogoetak egiteko. Beterri Buruntzak, gainontzeko eskualdeak bezala, egingo den Turismo Estrategiaren hausnarketan parte hartuko duela esan du.
- Bestalde, Urnietako ordezkariak galdetu du “Eskualdeak” partidarengatik eta Zuzendariak erantzun dio GFAk bultzatutako programa bat dela eskualdeko enpresak, modu desberdinean, bultzatzeko eta laguntzeko, besteak beste: enpresen erresilientzia lantzeko (belaunaldien arteko erreleboa lantzeko asmoa dago hemen), lanaren zentzia, Txekin/Emekin....
- Plan estrategikoren partidarengatik ere galdetu du Urnietako ordezkariak eta Lehendakariak erantzun dio pentsatuta dagoela eta agian Plan Estrategiko bateratu bat egiteko intentzioa dagoela. Hala ere, ez dago ezer erabakita eta ikusi beharko dela esan dio.
- Lasarte-Oriako ordezkariak galdetu du TEE 2025-2026engatik, ea partida horretan dagoen kreditua den programan gastatzea aurreikusten den %53 edo %100. Idazkari-kontuhartzaileak erantzun dio %53koa dela.
- Bestalde, Urnietako ordezkariak galdetu du “zaintza”ren partidarengatik eta Lehendakariak erantzun dio, askotan esan den bezala, eskualdeko zaintzaren egoeraren diagnosi bat egin zela aurreko legealdian eta hori eguneratzeko partida dela. Urnietako ordezkariak erantzun dio Urnietan diagnosi hori duela gutxi egin dela baina gainontzeko herriek behar hori ikusten badute, ondo iruditzen zaiola. Lasarte-Oriako ordezkariak esan du kontuz ibiltzeko Mankomunitateko Estatutuen Lehenengo Xedapen Iragankorarekin, izan ere, bertan mugak jartzen dira Mankomunitatek zaintzaren inguruan lanak egiterako garaian (udalerriekin hitzarmen bat sinatu beharko du...).
- Bestalde, Zuzendariak gehitu du asmoa dela Enplegua eta Enpresa departamentuak nolabait lotzea eta horretarako lan eskaintzen kudeaketa egiteko

asmoa dugula. Hala ere, errealistak izan behar gara eta ondo aztertu beharko dugu nahikoa baliabide, batez ere, giza-baliabide, daukagun horri erantzuna emateko. Andoingo ordezkariak galdetu du lan eskaintzak kudeatzeak zer esan nahi duen zehazki eta Zuzendariak erantzun dio batez ere dela gure webgunean lan-eskaintzen atari bat izatea eskualdeko enpresen lan-eskaintzak baitan hartzen dituen, gerora, pertsonak aukera izan dezaten lan-eskaintza horietara sarbidea izateko. Hala ere, lan-karga handia suposatzen duela lanketa honek adierazi du eta ikusi beharko da hau egiteko aukera dugun.

Lehendakariak bozketara eraman du gai-ordeneko puntu hau eta alde azaldu dira: Andoain, Astigarraga, Usurbil eta Hernaniko ordezkariak (guztira, boto haztatuen %65,89ak alde azaldu dira) . Bestalde, Urnietako eta Lasarte-Oriako ordezkariak abstenitu egin dira (boto haztatuen %34,11). Beraz, Kontuen Batzorde Bereziaren irizpenak bertaratutako gehiengo soilaren bidez onartzen direnez (2568/1986 Errege Dekretua, azaroaren 28koa, Toki Erakundeen Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Erregelamenduaren 135.3. artikularen arabera), onartutzat ematen da Kontuen Batzorde Bereziaren oniritzia eta prest egongo litzateke Batzar Nagusiak onartzeko 2025ko aurrekontuak.

Gai Zerrendaz kanpo, *Galdera, erregu eta proposamen* atalera iritsi aurretik, eta gaiaren eztabaida presazkoa dela iritzi ondoren, aho batez, eta beraz, batzarkideen gehiengo osoaren quorumarekin, ondoko erabakiak hartu ziren

3.- Galdera, erregu eta proposamenak.

Urnietako ordezkariak galdetu du egin ditugun edo egiteko intentzioa daukagun hurrengo planengatik:

- kontratazio-plana: erantzun zaio aurreikuspena badagoela
- iruzur-plana: erantzun zaio hau pendiente dagoela
- Plan estrategikoa: agian datorren urtean hasteko intentzioa dagoela
- Berdintasun-plana: pendiente daukagula
- Dirulaguntzen plan estrategikoa ere egingo dela esan zaio, baita dirulaguntzak emateko arautzen duen erregelamendu orokorra.
- Langileen lan-arriskuen prebentzioa. Hori eginda daukagula esan zaio.

Honetaz gain, Lehendakariak jakinarazi die bilerako ordezkariari iraunkortasun teknikaria mediku-bajan dagoela eta horrek suposatzen duela bere lanak Zuzendariak eta Enpresa teknikariak bere gain hartzea.

Azkenik, idazkari-kontuhartzaileak gogorarazi die urtea bukatu baino lehen Mankomunitateko 2024 urteko LEPa argitaratuko dela

Eta beste aztergairik ezean, lehendakariak amaitutzat eman du ohiko batzaraldia, 13:53 minutu zirenean. Idazkari-kontuhartzaileak batzaraldiari dagokion agiri hau idatzi eta Lehendakariak irakurri eta ontzat eman ondoren, biek izenpetu dute, bat etorritz Toki Erakundeen Antolamendu, Jardunbide eta Araubideari buruz indarrean dagoen Erregelamenduaren 110.2 artikuluan agindutakoarekin. Eta horren guztiaren fede, nik, naizen honek, ematen dut.

O.E., / Vº Bº
Lehendakaria

Idazkari-kontuhartzailea

1.- Lectura y aprobación, si procede, del borrador del acta de la reunión celebrada el 11/11/2024.

Una vez leído en primer lugar el acta correspondiente a la sesión de la Junta de Gobierno de fecha 11/11/2024, la Presidenta somete a votación la aprobación de la misma, que es aprobada por unanimidad por la Junta de Gobierno.

2.- Visar, en su caso, la Comisión Especial de Cuentas los presupuestos de la Mancomunidad para 2025.

Toma la palabra el representante de Urnieta y dice que antes de la reunión se ha reunido con el Secretario-Interventor, junto con la representante de Lasarte-Oria, y que han tenido la oportunidad de aclarar algunos temas, aunque algunas dudas han quedado por resolver.

Antes de entrar con las dudas de los presupuestos de 2025, quería aclarar que en la anterior Asamblea General se acordó incluir el puesto de Técnico de Sostenibilidad dentro del departamento de Empresa y, por lo tanto, convertir el puesto en Técnico de Empresa y Sostenibilidad. Por tanto, quiere dejar claro que los trabajos que va a realizar esta técnica van a ser de sostenibilidad en relación con las empresas y no trabajos de sostenibilidad que se hacen en los ayuntamientos.

La Presidenta le responde que ha habido un cambio de organigrama y que sí, que se dedicará a labores de sostenibilidad relacionadas con las empresas.

En relación con esto, el representante de Urnieta dice que en un informe de la Directora pone que esta técnica de sostenibilidad va a dedicarse en un 50% a la sostenibilidad relacionada con la comarca y en otro 50% a la sostenibilidad relacionada con las empresas.

La Presidenta le contesta que este informe técnico ha quedado obsoleto, que ha habido cambios desde que se emitió, y que en el informe definitivo ya no lo pone.

Al margen de esta cuestión, plantea sus dudas en los presupuestos de 2025:

- Solicitan una estimación del cierre del ejercicio 2024 para ver el grado de utilización de cada partida.

El Secretario-Interventor le contesta que intentarán hacer algo, si bien le ha informado previamente de que no va a ser fácil porque algunas partidas han cambiado respecto a 2024, entre otras cosas porque algunas partidas generales de 2024 se han repartido en otras más concretas, lo que dificulta la comparación que se pretende.

- Pregunta por qué han bajado los gastos de luz y se le contesta porque se ha visto que había excedente en el crédito de esa partida y no se prevé que se necesiten tantos créditos.

- La representante de Lasarte-Oria indica que en la partida 1 0100.227.430.00.26 2025 "Otras actividades" hay 8.000 € y pone que van a parar a Beterri Saretuz. Ha expresado su preocupación sobre esto ya que en la pasada Junta de Gobierno preguntó expresamente qué relación teníamos con Beterri Saretuz o qué trabajo teníamos con ellos.

La Presidenta aclara que no tenemos nada pactado ni hablado con Beterri Saretuz ni ahora ni de cara al futuro. Sin embargo, Beterri Saretuz es un grupo de empresas que se creó en la comarca y que en su día se promovió desde la comarca. En su opinión es importante estar cerca de un colectivo de empresas y emprendedores de este tipo y a ella, personalmente, sí le gustaría colaborar en algo con Beterri Saretuz. No obstante, ha dicho que a día de hoy no hay nada ni acordado ni hablado con ellos y que el crédito que hay en la partida "otras actividades" no tiene por qué gastarse en ello. De hecho, los 8.000 € ahí existentes son el crédito adicional a utilizar si queremos aumentar lo imprevisto o previsto en el departamento de emprendimiento.

La Directora completa lo dicho por la Presidenta y dice que ve bien que se deje una partida por si acaso, y que también hay otra partida de este tipo en el departamento de empresa. Justifica lo anterior diciendo que cada año la DFG hace un trabajo concreto (este año, por ejemplo, ha sido el Sentido del Trabajo) y en 2025 será otra cosa. Por ello, conviene, por ejemplo, dejar créditos suficientes en este tipo de partidas para llevar a cabo estos trabajos impulsados por la DFG.

La representante de Lasarte-Oria contesta que no le parece bien dejar ninguna partida en el presupuesto que no tenga un objetivo concreto. Dice que las partidas tienen que tener un objetivo concreto y que en el futuro, si se identifica alguna necesidad, se puede dar respuesta a esa necesidad mediante una modificación de créditos. Por ello, la representante de Lasarte-Oria propone que "otras actividades" pasen a la partida de crédito global.

Toma la palabra el representante de Andoain y dice que a él le da igual pasar al crédito global esas partidas o no. No obstante, dice que hay que tener en cuenta que si los dejamos en el crédito global, cuando en el futuro tengamos necesidad de esos créditos, tendremos que soportar más la labor administrativa y burocrática para utilizarlos. El Secretario-Interventor responde que esto es así pero que tomar dinero del crédito global para otras partidas es menos laborioso que hacer una modificación de crédito. La competencia la tendría la Presidenta y, aunque haya que hacer un nuevo expediente, es más rápida en plazo.

Toma la palabra la representante de Usurbil y dice que en el Ayuntamiento de Usurbil, por ejemplo en el departamento de urbanismo, ellos tienen unas partidas de este tipo para hacer frente a unos gastos imprevistos. Dice que los créditos de esas partidas, como aquí, no son grandes, pero que ellos sí utilizan este tipo de partidas.

El representante de Urnieta dice que a él le da igual que esos créditos se dejen como están o que pasen al crédito global.

- El representante de Urnieta pregunta qué se piensa hacer en materia de turismo y la Directora le responde que hay una partida de 26.000 € para llevar a cabo proyectos relacionados con Basquetour, ya que el Gobierno Vasco pide que estos programas sean ejecutados por una asesoría (código ético, enogastronomía, turismo familiar...). Por otro lado, hay otra partida de 17.000 € para reflexiones sobre turismo. Beterri-Buruntza, al igual que el resto de comarcas, participará en la reflexión de la Estrategia de Turismo que se va a llevar a cabo.

- Por otra parte, el representante de Urnieta pregunta por la partida "Eskualdeak" y la Directora le responde que es un programa impulsado por la DFG para impulsar y apoyar, de manera diferente, a las empresas de la comarca, entre otras cosas: para trabajar la resiliencia de las empresas (aquí se pretende trabajar el relevo generacional), el sentido del trabajo, Txekin/Emekin...

- El representante de Urnieta pregunta también por la partida del Plan Estratégico, a lo que la Presidenta responde que está pensado y que quizás hay intención de hacer un Plan Estratégico conjunto. Sin embargo, no hay nada decidido y le ha dicho que habrá que verlo.

-La representante de Lasarte-Oria pregunta por la ALE 2025-2026 si el crédito existente en esta partida es el 53% o 100% que se prevé gastar en el programa. El Secretario-Interventor responde que es del 53%.

- Por otra parte, el representante de Urnieta pregunta por la partida de "Cuidados" a lo que la Presidenta responde que, como se ha dicho en numerosas ocasiones, se hizo un diagnóstico de la situación del cuidado en la comarca en la pasada legislatura y que es una partida para actualizarlo. El representante de Urnieta responde que en Urnieta este diagnóstico se ha hecho recientemente pero que si el resto de los pueblos ven esa necesidad, le parece bien.

La representante de Lasarte-Oria dice que se tenga cuidado con la Disposición Transitoria Primera de los Estatutos de la Mancomunidad, ya que en ella se establecen limitaciones a la hora de que las Mancomunidades realicen trabajos de Cuidados (deberá firmar un convenio con los municipios...).

- Por otra parte, la Directora añade que la idea es vincular de alguna manera los departamentos de Empleo y Empresa y que para ello tenemos previsto hacer una gestión de las ofertas de empleo. Sin embargo, hay que ser realistas y analizar bien los recursos suficientes, sobre todo los recursos humanos, para dar respuesta a lo que tenemos. El representante de Andoain pregunta qué significa exactamente la gestión de las ofertas de empleo y la Directora le responde que sobre todo es que en nuestra web haya un portal de ofertas de empleo que englobe las ofertas de empleo de las empresas de la comarca para que, posteriormente, las personas puedan tener acceso a ellas. Sin embargo, esta elaboración ha indicado que supone una gran carga de trabajo y habrá que ver si tenemos la oportunidad de hacerlo.

La Presidenta somete a votación el siguiente punto del orden del día, siendo favorables los representantes de Andoain, Astigarraga, Usurbil y Hernani, con un 65,89% de los votos ponderados a favor. Por su parte, los representantes de Urnieta y Lasarte-Oria se han abstenido (34,11% de los votos ponderados). Por tanto, dado que los dictámenes de la Comisión Especial de Cuentas se aprueban por mayoría simple de asistentes (Real Decreto 2568/1986, de 28 de noviembre, según el artículo 135.3 del Reglamento de Organización, Funcionamiento y Régimen Jurídico de las Entidades Locales), se da por aprobado el visto bueno de la Comisión Especial de Cuentas y estaría dispuesto a aprobar por la Asamblea General los presupuestos de 2025.

Fuera del Orden del Día, antes de llegar a la sección de Ruegos, preguntas y propuestas, y tras considerar urgente el debate del asunto, por unanimidad y, por tanto, con el quórum de la mayoría absoluta de los junteros, se adoptaron los siguientes acuerdos.

3.- Ruegos, preguntas y propuestas.

El representante de Urnieta pregunta por los planes que hemos realizado o los que tenemos intención de hacer:

- Plan de contratación: se responde que existe previsión
- plan de fraude: se responde que está pendiente
- Plan estratégico: que hay intención de empezar quizá el año que viene
- Plan de Igualdad: está pendiente
- Se le informa de la elaboración del plan estratégico de subvenciones y del reglamento general que regula su concesión.
- Prevención de riesgos laborales de los trabajadores. Se le ha dicho que ya lo tenemos hecho.

Además, la Presidenta informa a los representantes de la reunión que la técnica de Sostenibilidad está de baja médica, lo que supone que sus trabajos sean asumidos por la Directora y la Técnica de Empresa.

Por último, el Secretario-Interventor les recuerda que antes de fin de año se publicará la OPE 2024 de la Mancomunidad

Y a falta de más asuntos que tratar, la Presidenta da por finalizada la sesión ordinaria a las 13:53 minutos. De conformidad con lo dispuesto en el artículo 110.2 del vigente Reglamento de Organización, Funcionamiento y Régimen de las Entidades Locales, una vez redactado por el Secretario-Interventor el presente documento correspondiente a la sesión, leído y visto bueno por la Presidenta, ambos lo suscriben. Y a fe de todo esto, yo, que soy, doy.

O.E., / Vº Bº
La Presidenta

El Secretario-Interventor



Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:

2024BG010015-Akta Ofiziala/Acta Oficial (BETERRI BURUNTZA)